

# **Bilboko Jaietako Ordenantza**

Udalbatzak 2004ko maiatzaren 31n egindako batzarraldian erabaki hau hartu zuen, besteak beste (esp.: 01-2500-000104):

«1. Bilboko Jaietako Ordenantza berria behin betiko onartzea, espedientean dagoen testuarekin bat etorrira. Horretarako, Udalbatzak hasieran onartutako Ordenantza jendaurrean egon den bitartean aurkeztu diren iradokizunak eta erreklamazioak aztertu dira.

Alegazio batzuk (osorik edo zati batean) onartu egin dira, Kultura Sailak 2004-05-10ean egindako txostenaren arabera.

2. Erabaki honen berri eragina jasoko duten udalaren sail eta zerbitzuei jakinaraztea, bai eta alegazioak aurkeztu dituzten pertsona eta elkarteei ere.

3. Azkenik, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean behin betiko onartu den testua argitaratzea, hamabost egun igaro ondoren indarrean sar dadin.»

Bilbon, 2004ko ekainaren 21ean.—Behin-behineko idazkaria orokorra

## BILBOKO JAIETAKO ORDENANTZA

### I. KAPITULUA

#### APLIKAZIO EREMUA

##### 1. artikulua.—Xedea

Ordenantza honen xedea da Urian egiten diren jaietako jardueren (Aste Nagusia, Aratusteak, auzoetako jaiak, San Joan gaua eta antzeko beste batzuk) zenbait alderdi arautzea; hartara, legeria orokorrean eta udal arautegian indarrean dauden eta aplikagarri diren gai horri buruzko zehaztapenak osatu egingo ditugu.

##### 2. artikulua.—*Urteko jaien egutegia*

Urtearen hasieran, Jaietako Batzorde Mistoari eta jaietako batzordeei —kasuan kasu— entzun ondoren, alkatetzak Aste Nagusiko, Aratusteetako, auzoetako jaietako eta urtearen barruan egingo diren antzeko jardueretarako egutegia zehaztuko du. Auzoetako jaiak eta antzeko beste jarduera batzuk egutegian sartzeko, barrutian barrutiko kontseiluaren batzak hartarako proposamena egin behar du eta horren aurretik, hango batzorde soziokulturalak txostena egin, jaien edo jardueren izena, zein egunetan egingo diren eta beste edozein alderdi interesgarri jasoz. Horretarako, aurreko urtearen amaiera aldera, Kultura Saileko teknikariek aurreikusi diren jardueren zerrenda aurkeztuko dute barrutietako batzordeetan.

Hala ere, aparteko inguruabarrak ez badago, Aste Nagusia abuztuko Ama Birjinaren jaiegunaren (abuztuaren 15ean) hurrengo zapatuan hasiko da, jaiegun hori astelehenetik barikura denean; jaieguna zapatua denean, egun horretan hasiko da eta domeka denean, aurreko zapatuan. Kasu guztietan Aste Nagusiak hurrengo asteburua ere hartuko du.

## II. KAPITULUA

### ASTE NAGUSIA

#### LEHENENGO ATALA

#### TXOSNAK, TERRAZAK ETA ANTZEKOAK

##### **3. artikulua.—*Aldi baterako instalazioak***

a) Aste Nagusian, ondorengo hauek jarri ahal izango dituzte txosnak, terrazak eta antzekoak:

1. Jaietako konpartsak, beti ere Udalak halakotzat baditu eta Herritarren Partaidetzako Elkarteen Udal Erregistroan izena emanda badaude.
2. Irabazi asmorik gabeko elkarte eta entitateak, Elkarteen Udal Erregistroan edo kasuan kasuko Erregistro Orokorrean izena emanda badaude eta egoitza Bilbon badute.
3. Aisiako eta ostalaritzako establezimenduak, euren lokalen instalazio erantsiak ipintzeko, beti ere jarduera nagusiaren osagarri badira.

b) Horiek guztiak egunean egongo dira euren gizarte- eta zerga betebeharretan.

##### **4. artikulua.—*Deialdia eta ebazpena***

Aurreko artikuluan aipatutakoaren ondorioetarako, interesdunek egoki den eskabidea egingo dute, alkateak jaietarako egiten duen deialdi publikoan ezartzen den epearen barruan eta eskatzen diren agiri osagarriak erantsiz. Era berean, deialdi horretan zehaztuko dira okupatu ahal izango diren aldeak eta instalazioek bete beharreko baldintza zehatzak.

Eskabideak ebazteko ondokoak hartuko dira kontuan:

1. Jaietako konpartsak badira, jaiei egin dizkieten ekarpenak, norbanako mailan eta talde mailan.
2. Irabazi asmorik gabeko elkarteak eta entitateak badira, espazioak esleitzeko orduan irizpide hauek hartuko dira kontuan: onura publikoko adierazpena, jardueran egonkortasuna eta kaudimena erakustea, txosnaren ustiapenean lortutako errekurtsoak Bilbon egiteko jardueretan erabiltzea, egingo dituzten programen egokitasuna, gizarte interesa, bideragarritasuna eta inpaktua, bai eta txosna estetikaren aldetik inguruari egokitzea ere.
3. Amaitzeko, aisiako eta ostalaritzako establezimenduak badira, eskatzen zaizkien baldintzak betetzeaz gain, kontuan hartuko dira instalazioan egingo diren jarduerak eta hura inguruan integratzea ere.

Artikulu honetan aipatutako esleipen-eskabideak ebatzi behar direnean, udaleko sailen txostenak aztertuko dira, beharrezkoak direnean, eta Jaietako Batzorde Mistoaren iritzia eskatuko da, Bilboko Konpartsen Federakundearen barruan dauden konpartsen txosnak jartzeko lekuari dagokionez.

#### SOINU-MAILAK ETA ORDUTEGIAK

##### **5. artikulua.—*Udalerria zonakatzea, ordutegiak eta soinu-mailak ezartzeko***

Erabilera publikoko espazioetan jarritako txosnetan eta antzeko instalazioetan eta aisiako eta ostalaritzako establezimenduetan (lehendik duten baimenak ez dienean horrelakorik baimentzen) megafonia- aparatuak jartzen badira, horien

zarata-mailei eta ordutegiei buruzko baldintzak zehazteko, udalerria 3 aldetan banatu da. Hala ere, baldintza horiek ez dira eragozpen izango araudi orokorra edo kasuan kasuko sektorekakoa betetzeko.

Alkatetzak, Jaietako Batzorde Mistoari entzun ostean, alde bakoitzean zein lur eta azalera sartzen diren zehaztuko du Aste Nagusia egiten den bakoitzean, baita ordutegiak eta soinu-mailak ere, beti ere gehieneko mugak gainditu barik. Lehenengo aldea plaza Biribilak eta Zazpi Kaleek osatzen dute.

## **6. artikulua.—Megafoniaren zarata-maila eta gehieneko ordutegiak**

1. Kanpoko megafoniaren bidez egin daitekeen gehieneko zarata-maila eta ordutegiak hauek dira:

### **1.1. 1. aldea edo ordutegi zabalena eta zarata-mailarik altuena dituen**

Alde honetan dauden txosnak eta antzeko instalazioak: gehienez ere, 95 dbA, hurrengo eguneko 05:00ak arte, eta gehienez ere 85 dbA, 05:00etatik 07:00etara bitartean.

Aisiako eta ostalaritzako establezimenduek kanpoaldean jarritako megafonia: gehienez ere, 85 dbA, hurrengo eguneko 05:00ak arte, eta gehienez ere 70 dbA, 05:00etatik 07:00etara bitartean.

Txosnek eta antzeko instalazioek, gehienez ere 07:00etara arte eduki dezakete musika jarrita; hala ere, 08:00etara arte zabalik eduki ahal dituzte, soinurik gabe.

### **1.2. 2. aldea, tarteko ordutegia eta zarata-maila dituen**

Alde honetan dauden txosnek eta antzeko instalazioek, gehienez ere, 85 dbA, hurrengo eguneko 01:00era arte, eta gehienez ere 80 dbA, 01:00etik 04:00etara bitartean.

Aisiako eta ostalaritzako establezimenduetan, kanpoko megafoniaren gehieneko maila 75 dbA izango da.

Txosnek eta establezimendu guztiek 04:00etan soinua kendu eta euren jarduna amaituko dute.

### **1.3. 3. aldea. Udalerriaren gainerako aldeak**

Aisiako eta ostalaritzako establezimenduek, gehienez ere, hurrengo eguneko 04:00etan amaituko dute euren jarduna. Kanpoaldean megafonia ipintzeko baldintzak: establezimenduen artean, gehienez ere, 20 metroko distantzia egon behar da eta euren artean ados jarri behar dute musika bera ipintzeko. Musika, gehienez ere, 70-75 dbAkoa izango da.

2. Barruko megafoniari dagokionez, aisiako eta ostalaritzako establezimenduek euren lizentzian zehaztutakoa beteko dute, beti ere, muga 80 dbA-tan dutela.

## **7. artikulua.—Kanpoko megafonia batera ipintzea**

Megafoniako kanpoaldeko aparatuak batera jarri behar dira establezimenduen titularrak desberdinak izan arren; horretarako behar den elementu komuna izango dute, baita konpresore-mugatzailea eta prezintagailua ere. Horri esker, txosnek eta aisiako eta ostalaritzako establezimenduek musika bera jarri ahal izango dute.

Horretarako, interesdunek eskabidea egingo dute, alkateak egingo duen deialdi publikoan ezartzen den epearen barruan eta eskatzen diren agiri osagarriak

erantsiz. Horren ostean, Udaleko Ingurumen Sailak zehaztuko ditu okupatu ahal izango diren aldeak eta instalazioek bete beharreko baldintza zehatzak.

### III. KAPITULUA AUZOETAKO JAIK

#### **8. artikulua.—*Batzorde antolatzaileak***

Auzoetan jaiak eta antzeko jarduerak antolatzen dituzten batzordeak Herritarren Partaidetzako Elkarteen Udal Erregistroan izena emanda egongo dira eta egunean egongo dira euren gizarte- eta zerga-betebeharretan. Gainera, jai batzorde bat ontzat emateko, bere estatutuak demokratikoak izango dira eta auzoko beste talde sozial batzuek jaien antolaketan parte hartzea ahalbidetuko dute.

Jaietako proiektuak barrutiko batzorde soziokulturalari aurkeztuko dizkiote; honek, proiektu horien berri emango du, behar izanez gero, barrutiko suspertzaile soziokulturala eta Kultura Saileko teknikariak aurrean direla, eta ondoren, kontseiluaren batzara eramango du gaia. Kontseiluaren batzaren proposamena gai hori erabakitzeko eskumena duen udal organora bidaliko da.

#### **9. artikulua.—*Jaietako proiektua aurkezteko epea***

Jaietako proiektuak barrutiko bulegoan egon behar du, gutxienez, jarduerak hasi baino hiru hilabete lehenagotik. Proiektuan egitarauaren egitura ere sartuko da, baita aurreko urteko jaiekin egingo diren aldaketak ere.

Jaietako behin betiko proiektuak barrutiko bulegoan egon behar du, gutxienez, jarduerak hasi baino hilabete BI lehenagotik.

#### **10. artikulua.—*Barrakak, txosnak eta antzekoak ipintzea***

Barrutiko kontseiluak, barrutiko jai-batzordeari entzun ostean, eta Kultura Saileko teknikarien aholkuak kontuan hartuta, jaigunearen kokalekua, luze-zabalera eta banaketa zehaztuko ditu, baita jaigunean ipin daitezkeen txosna eta antzekoen kopurua ere (barrakak eta feriako atrakzioak barne). Ahalegina egingo da barrakak eta feriako atrakzioak, ahal dela, sektore horretako elkarte esanguratsuek ipin dezaten.

Txosnak, batzorde antolatzaileari dagokiona alde batera utzita, batzordeko kide diren elkarteen artean banatuko dira.

Elkarte horiek auzoan jarduten dutenak izango dira eta Udal Erregistroan izena emanda egon behar dute. Txosna baino eskabide gehiago badago, zozketa publikoaren bidez banatuko dira.

Nolanahi ere, txosnak esleitzeko kontuan hartuko dira elkarteek jaietako eginkizunen aurrean duten erantzukizunaren, berdintasunaren eta gardentasunaren printzipioak eta barrutiko kontseiluak adierazten dituen irizpideen arabera gauzatuko da prozesua, beti ere auzoko jai-batzordeari entzun eta gero.

**11. artikulua.—*Jaien iraupena***

Ahal dela, jaiak jarraiko egunetan egingo dira eta asteburu bat edo biko iraupena izango dute, barrutiko kontseiluak orientatzeko ezartzen duen irizpidearen arabera. Sekula ez dira hamar egun baino gehiago izango.

**12. artikulua.—*Jarduerak amaitzeko eta txosnak ixteko ordutegia***

Dantzaldiak, kontzertuak eta gainontzeko ikuskizunak, aire zabalean nahiz izatez beste gauza batzuetarako diren esparruetan egin, amaitzeko eta txosnak eta antzekoak ixteko ordutegia hau da:

— Lehenengo asteburua (barikua eta zapatua):

- Soinua, 03:00etara arte.
- Jardueren amaiera (soinu barik), 04:00etan.

— Domekatik eguenera:

- Neguan, 22:00etara arte.
- Udan (ekainaren 21etik irailaren 30era arte), 24:00etara arte.

— Bigarren asteburua (barikua eta zapatua):

- Soinua, 02:00etara arte.
- Jardueren amaiera (soinu barik), 03:00etan.

Zaindariaren eguna domekatik ostegunera denean (biak barne), lehenengo astebururako jarritako ordutegia aplikatuko da (soinua, 03:00etara arte eta 04:00etan jarduera guztiak amaitu).

Lehenengo asteburuan ordutegia betetzen ez bada, bigarren astebururako baimena bertan behera geratuko da.

Barraken eta feriako atrakzioen ordutegia hau izango da:

— Bariku, zapatu eta jai bezperetan:

- Soinuarekin: 24:00etara arte.
- Soinu barik: goizaldeko 03:00etara arte.

— Astegun, domeka eta jaiegunetan:

- Soinuarekin: 22:00etara arte.
- Soinu barik: 24:00etara arte.

**13. artikulua.—*Kanpoko megafoniaren zarata-maila***

Kanpoan ipinitako bozgorailuek eta musika-instalazioek ez dituzte maila hauek gaindituko, beti ere 3 metrora neurtuta:

— Gertuen dauden etxebizitzetara 15 metro baino gehiago badago: 85 dbA.

— Gertuen dauden etxebizitzetara 10 eta 15 metro bitartean badago: 80 dbA.

— Gertuen dauden etxebizitzetara 10 metro baino gutxiago badago: 75 dbA.

Jarduera guztiak eta bozgorailuak eta baffleak barrura begira ipiniko dira beti, salbuespenik gabe.

**14. artikulua.—*Aisiako eta ostalaritzako establezimenduak***

Jaigunetik gertu dauden aisiako eta ostalaritzako establezimenduek mahaitxoak eta bestelako elementuak ipini ahal izango dituzte. Horiek ipintzeko baldintzak bananbanan aztertuko dira.

#### IV. KAPITULUA

##### ARATUSTEAK, SAN JOAN GAUA ETA ANTZEKO JAIAK

###### **15. artikulua.—*Jarduerak amaitzeko eta txosnak ixteko ordutegia eta kanpoko megafoniaren zarata-maila***

Aratusteetan, musika-animazioa eta txosnen jarduera goizaldeko 03:00etan amaituko da zapatuetan eta 22:00etan gainontzeko egunetan.

San Joan gauean, musika-animazioa eta txosnen jarduera 24:00etan amaituko da asteguna bada eta goizaldeko 03:00etan zapatua izanez gero. Babes Zibil Zerbitzuak adieraziko ditu sua egiteko baimena emateko baldintzak.

Kanpoko megafoniaren zarata-mailari dagokionez, auzoetako jaietarako ezarri dena aplikatuko da.

#### V. KAPITULUA

##### SEGURTASUN ARAU OROKORRAK

###### **16. artikulua.—*Jaietako feriako instalazioak***

1. Jaiguneetako eraikin edo instalazio guzti-guztiek ondorengo datuak eman behar dituzte instalazioa jarri aurretik:

- a) Erabilera, ikuskizun edo jarduera-mota; jardueran bero-iturriak erabiliko diren eta, hala denean, erabiliko den erregai-mota zehaztuko dira.
- b) Jardueren antolatzaileek ekitaldi edo ikuskizunetan zenbat jende sartzen den adierazi behar dute.
- c) Material suharberek suaren aurrean duten erreakziomaila M-2 izango da, gutxienez.
- d) Erresistentzia mekanikoa: kontuan hartu behar da egitura guztiek, euren pisuaz gain, metro karratuko 400 kg-ko gainkargako erresistentzia izan behar dutela.
- e) Argien eta gainerakoen instalazioak Tentsio Baxuko Elektrotekniako Araudiari egokituko zaizkio; instalazioak homologatutako enpresak ipini behar ditu.
- f) Suaren aurkako babes-instalazioak, jaiguneko azpiegitura orokorrean ipinitako instalazioak eta ikuskizun publikoetako, aisiako jardueretako eta suteen aurkako babeseko poliziaren arautegi orokorrean eskatzen direnak kontuan hartu barik, gutxienez, hauek izango dira:
  - ABC hautsezko eta 21A-113B gutxienerako eraginkortasuneko suitzalgailuak, behar diren beste.
  - Eszenatokiak:
    - ABC hautsezko eta 21A-113B eraginkortasuneko suitzalgailu bat, ikuskizunen bat dagoenean.
    - CO2 itzalgailu bat ekipo elektrikoetako suetarako, beharrezkoa bada.
  - Feriako atrakzioak:
    - ABC hautsezko eta 21A-113B eraginkortasuneko su-itzalgailu bat.
    - CO2 itzalgailu bat ekipo elektrikoetako suetarako, beharrezkoa bada.
  - Txosnak: ABC hautsezko eta 21A-113B eraginkortasuneko suitzalgailu bat; sua erabiltzen bada, bi itzalgailu behar dira.

Ez da onartuko azken berrikuspena duela urtebete baino gehiago eginda duen itzalgailurik, ez eta 20 urtetik gora duen itzalgailurik ere.

g) Inguruko eraikinekiko tartea. Feriako instalazioen (barrakak, eszenatokiak eta txosnak) eta hurbileneko eraikinen artean gorde beharreko tartea hauek dira:

— Etxebizitzak badira, gutxienez 3 metro.

— Beste erabilera batzuetarako eraikinak badira, eta eraikinon fatxadetan bahoak badaude feriako instalazioen aldera, gutxienez 3 metro. Salbuespen modura, 2 metroko tartea onartuko da, beti ere tarteko direnek baimena eman eta bahootan 60 minutuko suarekiko erresistentzia duten babes-elementuak ipintzen badira.

2. Instalazio guztiek teknikari gaituak egindako Segurtasuneko eta Muntatze-lanetako Ziurtagiria aurkeztu behar dute, konplexutasun tekniko txikiko instalazioek edo instalazioaren ezaugarriak direla-eta ziurtagiririk behar ez dutenek izan ezik.

#### **17. artikulua.—Larrialdietarako plana**

300 pertsonatik gora hartzen duten lokalek, itxiak izan ala ez, larrialdietako euren plana edukiko dute. Plan hori jardueraren edo instalazioaren ardura duen titularrak egingo du, eta, era berean, planaren betearazpena zaintzeko eta kontrolatzeko arduradunak izendatuko ditu, egoki denean.

Aforoa suteen aurkako arautegian ezarrita dauden okupazioaren arabera zehaztuko da.

#### **18. artikulua.—Feriako atrakzioak**

1. Eska dakiekeen gainerako dokumentazioaz gain, sektore honetako enpresariak eguneratutako Erantzukizun Zibileko Asegurua aurkeztu behar dute: gutxienez 601.105 eurokoa izango da mugitzen diren eta helduentzako atrakzioak badira, 300.508 eurokoa umeentzakoak badira eta 150.225 euro kaseta eta bestelakoak badira.

Mugitzen diren feriako atrakzioek, aipatutakoaz gain, ondokoak ere aurkeztu behar dituzte:

— Berrikuspen-ziurtagiria, jolasa egin duen enpresak, baimendutako enpresaren batek edo teknikari gaituren batek eginga.

Ziurtagiriaren balio-aldia, gehienez ere, urtebetekoa izango da. Urtearen buruan, berriro egin behar da.

— Teknikari gaituak egindako Segurtasuneko eta Muntatze-lanetako Ziurtagiria. Ziurtagirian, beren beregi aipatuko da arlo horretako udal arautegia eta Tentsio Baxuko Elektrotekniako Araudia betetzen dituela.

2. Jarduera hasi baino hamabost egun baliodun lehenago aurkeztu behar dira agiriak; Segurtasun eta Muntatze-lanen Ziurtagiria, ordea, feriako atrakzioa jendearentzako zabaltzen den egun berean aurkeztu ahal izango zaio ikuskatzaileari. Instalazioa martxan jarri ahal izateko ezinbesteko baldintza da.

3. Jarduera ipintzeko eta jarduteko baldintza teknikoei dagokienez, sektoreko elkarte adierazgarriekin erabakitakoa beteko dute, halakorik egonez gero, eta bestela, Udalak adierazten duena beteko dute.

**19. artikulua.—*Kaleko salmenta***

Gogorarazi gura dugu debekatuta dagoela kaleko salmentan aritzea, ezpada beren beregi baimendutako kasuetan eta, hala bada, horretarako jarritako lekuetan eta, ahal dela, sektoreko elkarteen bidez.

Jaigunearen barruan publizitatea egitea ere debekatuta dago, beren beregi baimendutako kasuetan izan ezik.

**VI. KAPITULUA**

**BESTE ARAU OROKOR BATZUK**

**20. artikulua.—*Diru-sarreraren zertarakoa***

Txosnak eta antzekoak ipintzeko baimena duten konpartsek eta elkarteek, behin jaiak amaituta, derrigorrean aurkeztu behar dituzte, gehienez ere hiru hilabeteko epean, diru-sarreraren eta gastuen balantzea, lortutako irabazi garbien zertarakoaren adierazpen arduratsua eta irabazien gastu-proiektua. Era berean, jardueraren memoria deskribatzailearen bidez, agindutako ekintzak benetan egin dituztela egiaztatuko dute eta adierazpen arduratsuaren bidez, haiek betearazi dituztela. Har daitezkeen beste neurri batzuk gorabehera, ez da baimenik emango hortik aurrera antolatzen dituzten antzeko ekitaldietarako, aipatutako dokumentazioa aurkeztu ezean eta hitz emandako ekintzak egin izana behar bezala egiaztatu ezean, beti ere, haiek egin eta hilabetera. Auzoetako jaiak eta antzeko ekitaldiak direnean, dokumentazioa eta ekintzak betearazteari buruz lehen aipatu ditugun egiaztagiria auzoko barrutiko batzorde soziokulturalean aurkeztuko dira.

**21. artikulua.—*Eskubideak eta bermeak***

Baimendutako txosnen eta aldi baterako gainerako instalazioen titularrek, baita jaietako jardueren antolatzaileek ere, horiek ipini aurretik eskatzekoak diren udal eskubideak ordaindu behar dituzte; beharrezkoa izanez gero, erantzukizun zibileko aseguruua kontratatu, indarreko arautegiaren arabera eta, azkenik, bermea eratu, edo abalaren bidez edo eskudiruzko gordailuaren bidez, gerta daitezkeen gorabeherari aurre egiteko, hirugarrenei egin dakizkiekeen kalteei aurre egiteko eta bereziki, hiri-altzari berriak jartzeko, garbiketalanak egiteko eta baimendutako jarduera egitean eragin daitezkeen gainerako gastuei aurre egiteko.

Auzoetako jai-batzordeek antolatutako jarduerak direnean, aipatutako aseguruua eta bermea osotasunean eskatu ahal izango zaizkie jai-batzordeei.

**22. artikulua.—*Abalak eta fiantzak itzultzea***

Jarduera amaitu eta 3 hilabeteko epean, eratutako abalak eta fiantzak itzuli edo kitatuko dira, baldin eta egoki diren udal sailek aurreko artikuluan aipatu ditugun titularrei edo antolatzaileei eska dakizkiekeen erantzukizunei buruzko txostenik egin ez badute.

**23. artikulua.—Erantzuleak**

Jaietako jardueren antolatzaileek eta gainerako entitate laguntzaileek arduradunak izendatu behar dituzte nahitaez. Arduradun horiek erraz aurkitzeko moduan egon behar dute uneoro, euren eskuhartzea behar duten edozein gai aztertu ahal izateko, eta horretarako, komunikabide egokia eduki behar dute. Era berean, Bilboko Udalak ziurtatuko du jaiak ospatzen diren bitartean udal teknikariak ere aurkitzeko moduan eta prest egongo direla.

**24. artikulua.—Aurretiazko ikuskapenak**

Jarduerak hasi eta instalazioak martxan jarri baino lehen, horien titularrei eta arduradunei ikuskapenak eta legezko kontrol tekniko egokiak egingo zaizkie. Lan horiek udaleko sail egokietako teknikari ikuskatzaileek egingo dituzte; ferriako atrakzioetan, segurtasun eta muntaketako ziurtagiria egiteko arduraduna ere bertan egongo da, derrigorrezkoa baita Adostasun Akta egiteko, atrakzioak baimenaren baldintzekin eta gainerako aginduekin bat etortzen badira. Horretarako, instalazioak hasi eta martxan jarri baino 24 ordu lehenago oso osorik muntatuta egongo dira Aste Nagusian eta Aratusteetan; gainerako jaietan, 8 ordu lehenago egon beharko dute.

**25. artikulua.—Betebeharrak ez betetzea**

Emandako baimenak eraginik gabe geratuko dira, besterik gabe, bete beharreko baldintzak betetzen ez badira; horrelakoetan, baita baimenik egon ezean ere, jarduera bertan behera utzi eta prezintatu egingo da berehala eta beharrezkoa bada, kautelazko neurriak hartuko dira, instalazioak kendu eta materialak konfiskatzea barne. Kautelazko neurriok sail eskudunek hartuko dituzte, bete ez diren baldintzak zeintzuk diren; beharrezkoa izanez gero, Udaltzaingoaren eta Suhiltzaileen laguntza materiala izango dute. Zuzentzeko moduko akatsik egonez gero, jardueraren arduradunei jakinaraziko zaie, akatsok lehenbailehen zuzentzeko. Jarduerari ezin izango zaio ekin harik eta udaleko teknikariek, behin gabeziak edo akatsak zuzenduta, adostasun akta jasotzen ez duten arte.

**26. artikulua.—Zehatzeko araubidea**

Goian adierazitakoa gorabehera, betebeharrak ez betetzeak egoki diren zehapenak ekar ditzake, aplikagarri den araudi orokorrean eta sektorekakoan ezarritako zehatzeko araubidearen arabera. Gainera, betebeharrak behin baino gehiagotan betetzen ez direnean edo baimenaren funtsezko elementuren bati lotutakoa denean, erantzulea jarduera horretako hurrengo edizio bietan, gutxienez, baimenik gabe gera daiteke.

**27. artikulua.—Emandako baimenen eta lizentzien izaera**

Baimenak prekarioan emango dira beti eta hortaz, onuradunengan ez dute ezelako eskubiderik sortzen; gainera, baimenak ezeztatu ahal izango dira honako inguruabarrak gertatzen badira: arriskua, desordenak, nahasteak edo interes orokorreko beste edozein.

Horien artean sartzen dira pertsonen duintasunaren aurka eraso egiten duten kartelak edo/eta ikurrak erabiltzea, horrekin jaietako ekitaldien bizikidetzak edo normaltasuna arriskuan jartzen bada. Horrelakoetan, udaltzaingoak beharrezkoak diren kautelazko neurriak hartuko ditu.

**28. artikulua.—*Irabazi asmorik gabeko elkarteak***

Irabazi asmorik gabeko elkarteek jaiak direla-eta aldi baterako instalazioak ipintzeko baimena eskatzen dutenean eta interes orokorra dagoela ikusten bada, lankidetzak-hitzarmena sinatu ahal izango da. Hitzarmen horrek establezimenduak ipintzeko lizentziaren balioa izango du eta beraz, baimendutako jarduerari dagozkion baldintzak eta titularrak hartutako konpromisoak bete beharko dira.

**29. artikulua.—*Udal espazioak***

Ordenantza honetako aginduak Bilboko Udalak zuzenean kudeatzen dituen espazioei aplikatuko zaizkie (kasuan kasu egoki direnak).

**30. artikulua.—*Oinarrizko azpiegiturak***

Espazio publikoak birmoldatzeko obrak egiten dituenean, Bilboko Udala ahaleginduko da jaietako jarduerak egiteko behar diren gutxieneko azpiegiturak ipintzen, horretarako aurrekonturik izanez gero. Horretarako, Kultura Sailak, tartean diren gainerako sail eta zerbitzuekin batera, jaiguneetarako azpiegiturak sortzeko eta horiek ipintzeko plana prestatuko du.

**31. artikulua.—*Higiene- eta osasun-baldintzak***

Jaiak egiteko ezinbestekoa izango da ordenantza honetako eranskinean adierazten diren higiene- eta osasun-baldintzak betetzea. Hala ere, hori ez da eragozpen izango arlokako xedapen zehatzak aplikatzeko.

**LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA**

Ordenantza honi buruz barrutiko batzorde soziokulturalaren txostenik ez badago, batzorderik eratu ez delako edo beste edozein arrazoirengatik, prozedurak aurrera jarraituko du haiek gabe. Barrutiko kontseiluko batzari dagozkion eginkizunak presidentek beteko ditu eta, horrela egin ezean, barrutiko bulegoak, egindako jarduketak ebatzeko, eskumena duen udal organoari bidaliko dizkio.

**BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA**

Udalak kontuan hartuko du Bilboko Konpartsen Federakundeak berari atxikita dauden konpartsen gainean duen ordezkariak, jaiak antolatzeko administrazio-izapideak eta Udalaren eta konpartsen arteko harremanak arintzeko eta errazteko orduan.

### **XEDAPEN IRAGANKORRA**

Auzoetako jai batzorde batek Ordenantza honetan jasotako jai ekintzak antolatu nahi baditu, urte bakoitzean bere barrutiko kontseiluari jakinaraziko dio eta bere estatutuak, barruan dauden elkarteak eta txosnak esleitzeko barne araudia zeintzuk diren adieraziko dute.

Eskabidea egin ondoren, barrutiko bulegoetan jendaurrean jarriko da, nahi duenak alegazioak aurkez ditzan.

Barrutiko gizarte eta kultura gaietako batzordeak txostena egingo du eskabideari eta alegazioei buruz, baten bat egonez gero.

Prozedura amaitzeko, barruti horretako kontseiluaren osoko bilkurak ebazpena emango du. Jai batzorde bati onespena emateko, derrigorrezkoa izango da Ordenantza honetako baldintzak betetzea.

Lehendik jaietako batzordea dagoen auzoetan —erregulartasunez jardun badu eta Ordenantza honetan eskatzen diren baldintzak betetzen baditu—, informazio-aldia eta alegazioak egiteko epea igaro ondoren, barrutiko kontseiluak batzorde hori onartuko du, beti ere alegazioak aztertu eta erabaki hori hartzea komeni ez bada edo hurrengo lerroaldean jasotako egoera gertatzen ez bada.

Auzoren batean jaietako batzordea elkarte batek baino gehiagok osatu nahi baina ados ipintzen ez direnean batzorde bakarra egiteko, orduan barrutiko kontseiluak erabakiko du nor izendatu.

Horretarako, batez ere, kontuan hartuko du elkarte bakoitza babesten duen auzotar kopurua.

Jaietako batzordetzat onartzeak ez du esan nahi batzorde horrek hurrengo urteetako jaiak antolatzeko eskubidea daukanik.

### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Ordenantza honen aurkakoak den guztian, baliorik gabe uzten da «Urian ospatzen diren zaindarien jaiak, tokikoak eta antzekoak direla-eta ipintzen diren jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak arautzeko Udal Arautegia», 1992koa. Udalak Ordenantza indarrean jarri eta, gehienez ere, bi hilabeteko epean, arau bien arteko korrespondentzien eta indarraldien taula prestatuko ditu jendeari jakinarazteko.

### **AZKEN XEDAPENAK**

#### **Lehenengoa**

Ordenantza honetako xedapenen aplikazioa ez da eragozpen izango honekin zerikusia duten gaiei buruzko arautegi orokorra eta udalarena aplikatzeko (Ikuskizun Publikoak eta jolas-jarduerak, Zirkulazioa, Ingurumena, Obra eta Zerbitzuak, Hiritarren Segurtasuna, Babes Zibila, Osasun Publikoa eta Elikagaien Sanitatea, Fiskalitatea, Irisgarritasuna...).

#### **Bigarrena**

Ordenantza honen betearazpena, bai eta interpretazioa ere, alkateari dagokio, edo eskuordetzeen bidez, udaleko sail eta zerbitzuetako arduradunei, euren eskumeneko gaietan.

### **Hirugarrena**

Udalak, Ordenantza honi buruzko agiriak eta prozesuak lehenbailehen normalizatzea bultzatuko du, kudeaketaren arintasunaren eta arrazoizkotasunaren mesedetan.

### **Laugarrena**

Ordenantza hau indarrean jarriko da behin betiko onartu eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egun igaro ostean.

## **ALDI BATERAKO JANTOKI KOLEKTIBOAK, TXOSNAK, JATETXEAK ETA ANTZEKOAK.**

### **BALDINTZA TEKNIKO-SANITARIOAK**

Era honetako establezimenduen barruan jarduera mota bi daude eta, beraz, bete beharreko baldintza tekniko-sanitarioak ere bi ataletan daude.

A) Jatekoak eta edatekoak prestatzen eta saltzen dituzten establezimenduak, edota edariak bakarrik saltzen dituztenak, hau da, txosnak eta antzekoak.

Instalazio-eskabidean euren elaborazioak mugatu, manipulazio txikiko eta osasun-arrisku txikiko janariak prestatu eta saltzen dituztela adierazi behar dute. Hona hemen baldintza horiek betetzen dituzten produktuak:

— Ogitartekoak edo pintxoak, produktu hauekin eginak: txorizoa, txistorra, odolostea, bacona edo hirugiharra, solomo ontzutua, hanburgesa, saltxitxa, fianbreak, urdaiazpiko ondua, hegaluze, hegalabur eta sardinen kontserbak, gazta onduak edo erdi-onduek eta antzekoak.

— Tortillak edo arrautzopilak (arrautza pasteurizatua erabili behar da).

— Sardina erreak...

— Eta, horiekin batera, enbasatutako jangai industrialen salmenta, egoki bada.

Era horretako establezimenduek ondorengo baldintzak bete behar dituzte, 17. zenbakikoa izan ezik.

B) Jantoki kolektiboak eta jatetxeak, euren elaborazioak mugatzen ez badituzte, aipatutako baldintza guztiak bete behar dituzte, 17. atala barne.

1. Ontziratu gabeko produktuak egiten edo prestatzen dituzten langileek elikagaien higienaren arloko prestakuntza-egiaztagiria eduki behar dute (lehen elikagaien manipulatuzailearen karneta zena).

Sukaldeko langileek arropa argia erabiliko dute, erabili ere lan horretarako bakarrik. Langileek euren garbitasuna zainduko dute eta arropa garbiak erabiliko dituzte; jarduerarako behar dituen tresnak ere garbi egongo dira beti. Barran edo antzeko zerbitzuetan jarduteko ez da osasunaren arloko prestakuntza-egiaztagirik behar.

2. Janari eta edariekin zerikusia duten jarduera guztiak (produktuak gorde, manipulatu eta saltzea) teilatua duten instalazioetan egingo dira. Instalazio horiek eguraldi txarretik babestuta egongo dira; era berean, babestuta egongo da publikoak janariak gorde eta manipulatzeko aldeetara iristerik izan ez dezan. Zikinkerietatik, kutsatutako edo osasunaren kalterako izan daitekeen edozertatik behar bezain urrun egongo dira ipinita.

3. Biltegiak, hozkailuak, manipulazio-guneak, lanerako lekuak eta abarrak lan-bolumenari egokituak izango dira.

4. Lan-tresneria garbitzeko eta langileen eta instalazioaren garbiketarako, ur korrontea edukiko dute harrietara eta/edo konketetara konektaturik. Hustubidea estolda-sarera egingo da. Hori guztia, janariak prestatzen dituzten instalazioek (jantoki kolektiboak, txosnak, jatetxeak...) eta edariak bakarrik saltzen dituztenek bete behar dute, beti ere instalazioa 24 ordutik gora ipiniz gero. Garbiketarako gauzak ere edukiko dituzte (xaboi likidoa eta paperezko eskuoihalak).

Harraskak eta konketak ezkaratzean eta barran ipiniko dira.

Salbuespena:

A) Txosnak edo manipulazio txikiko edo ontziratu gabeko janariak prestatu eta saltzen dituzten establezimenduak denbora gutxirako ipintzen badira, (gehienez ere, egun baterako), onartu egingo da edateko ura ur-korrontea ez izatea eta ur-tangakoa erabiltzea.

Horrelakoetan, instalazioak ondokoak eduki behar ditu:

— Ur-tanga, nahikoa edukiera duena; irteera-txorrota konketara konektatuta.

Material egokiez eginda eta egoera onean egon behar du higienearen aldetik.

— Hustubidea edo erabilitako ura batzeko ontzia izango du.

— Garbiketarako gauzak (xaboi banagailuan eta paperezko eskuoihalak) manipulatzailen garbiketarako, eta instalazioak garbitzeko behar direnak.

B) Edariak bakarrik zerbitzen dituzten txosnek, instalazioa 24 ordutik behera ipiniz gero, ez dute derrigorrean eduki behar harraska eta ura, beti ere erabili eta botatzeko edalontziak erabiltzen badira.

5. Behe gaina erraz garbitzeko eta hondakinak (solidoak nahiz likidoak) ez pilatzeko modukoa izango da. Lokatzik ez egiteko eran ipiniko da. Ezkaratze-ingurukoa, nahitaez izango da leuna eta etengabea, eta garbitzeko modukoa.

6. Janariak manipulatzeko edo erakusteko lekua material leun, inerte, ez xurgatzaileekin egindakoa izango da, erraz garbitzeko eta desinfektatzeko (formika, melamina edo altzairu herdoilgaitza...); ezin da egurrezkorik erabili. Jardueraren eta jarduera-motaren arabera, janari gordinak manipulatzeko leku bat eta janari higienizatuarentzako (garbiak, maneiatura edo prestatuak daudenak) beste bat eduki beharko dira.

7. Jendearentzako edalontziak, platerak eta mahai-tresnak erabilera bakarrekoak izango dira (erabili eta botatzekoak).

Behin baino gehiagotan erabiltzeko edalontziak, platerak eta mahai-tresnak erabili ahal izango dira bakar-bakarrik ontzi-garbi-gailua edukiz gero (zerbitzuaren premiak adinako edukiera izango du) eta horiek erabiltzeak jendearentzako istripu-arriskurik ekarri ezean (esaterako, beira apurtzearen ondorioz). Adibidez, jaiguneetan halakorik erabiltzerik ez dago.

8. Produktuak hozkailuan gordetzekoak badira, hozkailuak eduki behar dira. Janariak ezin dira edari-hozkailuetan gorde, bestelako hozkailuak eduki behar dira, beren beregi janariak gordetzekoak.

Janari hoztuak 0° eta 4° C bitarteko tenperaturan gordeko dira eta janari izoztuak, gutxienez, -18° C-tara.

Oro har, hozkailu-mota hauek eduki behar dituzte:

- Edarientzako hozkailuak (botilategiak).
- Janari gordinak edo higienizatu gabeentzako (okela, hanburgesak, arraina...) hozkailua.
- Higienizatutako edo kontsumitzeko prest dauden janari entzako hozkailua. Janari gordinak eta prestatuak ez dira bata bestearen ondoan egongo, ez dira ikutzen egongo.
- 9. Establezimendu hauek eskuratzen dituzten lehengaiak behar bezala identifikatuta egongo dira: ontziraturako lehengaiak badira, etiketak edukiko dituzte eta sueltoan eskuratutakoak badira, fakturak edo merkataritzako beste dokumentu batzuen bidez identifikatuko dira.
- 10. Sandwichak, pintxoak, tortillak edo merkaturatu nahi diren beste janari batzuk elikagaien industriek egindakoak izango dira eta behar bezala ontziratuta eta etiketatuta egongo dira. Ostalaritzako establezimenduek prestatutako janaririk ezin izango da salgai jarri.
- 11. Elikagaiak eta horiek jasotzeko ontziak ez dira behearen gainean jarriko ez biltegitratzeko prozesuan, ezta manipulatzeko edo prestatzeko prozesuan ere.
- 12. Janariak gordetzeko eta manipulatzeko aldea bereizita egongo da zerbitzu higienikoak dauden aldetik eta gainera, horretarako bakarrik erabili ahal izango dira, ez ordea, lo egiteko edo beste ezertarako.
- 13. Publikoari erakusten zaizkion produktuak behar bezala babestuta egongo dira jendearengandik; horretarako, bitrinak, enbaseak edo bildukinak erabiliko dira. Beharrezkoa bada, bitrina hozkailua erabiliko da.
- 14. Lan-jardun bakoitzaren ostean, esparrua garbitu eta desinfektatuko da; baita erabilitako tresna guztiak ere. Janariak gorde egongo dira.
- 15. Zaborrontziak eduki behar dira, poltsekin, zaborrak eta hondarrak botatzeko. Poltsak itxi egongo dira, edukiontzira botatzeko.
- 16. Publikoarentzako salmenta-prezioak agerian jarriko dira kartel batean.
- 17. Aipatutakoez gain, B ataleko jantoki kolektiboek ondokoak eduki behar dituzte sukaldeetan:
  - Behe gaina leuna, iragazgaitza, etengabea eta garbitzeko modukoa izango da.
  - Ur korrontea, hotza eta beroa, harraskan.
  - Manipulatuzaileek bakarrik erabiliko duten konketa; ura zabaltzeko sistema ez da eskuzkoa izango, pedalaren bidez edo beste sistemaren baten bidez eragingo zaio. Xaboa —banagailuarekin—, paperezko eskuoihalak eta atzazaletarako eskuila ere egongo dira.
  - Janariak eta edariak gordetzeko biltegia egongo da, ezkaratetik kanpora.
  - Aldagela egokia egongo da.
  - Ezkaratzean aireztapen egokia egongo da, bero, hezetasun eta kondentsazio handiegirik egon ez dadin.
  - Behin baino gehiagotan erabiltzeko edalontziak, platerak eta mahai-tresnak erabili ahal izango dira bakar-bakarrik ontzi-garbigailua edukiz gero (zerbitzuaren premiak adinako edukiera izango du) eta horiek erabiltzeak jendearentzako istripu-arriskurik ekarri ezean (esaterako, beira apurtzearen ondorioz).
  - Arrautzopolik eginez gero, arrautza pasterurizatua erabiliko da.

— Elikagaien Ikuskaritza zerbitzuak osasun-arrisku handia dakarten janariak prestatzeko baimena kendu ahal izango du, horretarako arrazoirik egonez gero.  
18. Saltokia behar bezain garbi, txukun eta atonduta eduki behar da jarduera egiteko.

### **BESTE ALDERDI TEKNIKO-SANITARIO INTERESGARRI BATZUK**

1. Establezimenduaren barruan, jendearentzako zerbitzu- eta aisia-gunea eta janariak gordetzeko eta manipulatzeko aldeak ondo bereizita egongo dira; janariekin arituko dira horretarako ardura duten langileak.
2. Establezimendua ipintzeko lekua erabakitzeke orduan, kontuan hartuko da esparruaren behean ez dadila urik gelditu.
3. Hanburgesak direla-eta: Gutxi egindako okela kontsumitzearen ondorioz dauden arriskuak ikusita, hanburgesak «ondo eginda» zerbitzatuko dira, barrua gordinik geratu barik.
4. Barazki gordinak direla-eta: Euren elaborazioak mugatzen dituzten establezimenduak badira, hau da, Txosnak, bakar-bakarrik erabili ahal izango dituzte barazki gordinak jatorri industrialekoak badira (garbitu, desinfektatu, zatitu, ontziratu eta etiketatutako letxuak eta barazkiak).
5. Arrautzopilak direla-eta: Arrautza pasteurizatua erabiliko da.
6. Txosnak eta antzeko establezimenduek, euren elaborazioak mugatu badituzte eta osasun-arrisku txikiko beste janari batzuk prestatu gura badituzte (A atalekoez gain), Osasun eta Kontsumo Sailari eskatu behar diote baimena. Honek, egoki baderitzo, onartu egingo du eskaria. (Luis Briñas kalea, 16.Telefonoa: 944.20.49.00.)  
Era honetako instalazioak ipintzeko, egoki den memoria sanitarioA bete behar da.

Erreferentziako araudia:

- Ikuskizun publikoak eta aisiako jarduerak arautzeko Udal Araudia. EAO (1993-01-19).
- Prestatutako janarien higiene arauak, 3484/2000 E.D., EAO, 2001-01-12.
- Elikagaien higiene-arauak. 2207/1995 Errege Dekretua, EAO, 1996-02-27.
- Elikagaien manipulatzailerei buruzko araudia (EAO, 2000- 02-25 eta EHAA, 2001-10-22).

### **MEMORIA SANITARIOA, JANGAIEKIN ZERIKUSIA DUTEN JARDUERAK ALDI BATERAKO IPINTZEKO**

Zenbakia: 00000

Establezimenduaren izena: .....

Titularraren izen-abizenak: .....

NAN zk.: .....

Telefonoa: .....

Azoka/Merkatua/Jaia/: .....

Egunak (hasiera-amaiera): .....

1. JARDUERAREN DESKRIBAPENA

.....

.....  
.....  
2. INSTALAZIOAREN DESKRIBAPENA

.....  
.....

**Krokisa** (txosnak eta jatetxeak bakarrik) Kokatu konketa, harraska, hozkailua, ezkaratza...

3. LAN TRESNAK  
.....  
.....

4. URA ETA HUSTUBIDEA  
.....  
.....

5. HONDAKINAK BOTATZEA  
.....  
.....

6. MANIPULATZAILEAK  
.....  
.....

7. TXOSNAK ETA JATETXEAK BAKARRIK  
**Elaborazio mota**  
.....  
.....

**Garbiketa eta desinfekzioa** (instalazioarena, lanerako guneena eta ezkaratzeko tresnena):

.....  
.....

8. PUBLIKOARENTZAKO SALMENTA PREZIOEN KARTELA ETA ERREKLAMAZIO ORRIAK

.....  
.....

OHARRAK  
.....  
.....

Establezimenduaren ordezkari naizenez, konpromisoa hartzen dut apaingarri publikoak jagoteko eta adierazten dut jangai guztiak legezkoak direla, adierazitako jatorria dutela eta emandako datuak benetakoak direla.

Bilbon, .....

Sinadura: .....

NAN: .....

Berrikusia (izena): ..... Eguna: .....

Erantzuna: Aldekoa

Aldekoa baina baldintzatua

Aurkakoa

(Adierazi egoki den neurri zuzentzailea.)

.....  
(Sinadura)

Zalantzarik baduzu, goian dituzu telefono-zenbakia eta helbidea.